2. mailako Hirigintza: sarrera

BIZITEGI-ANTOLAKUNTZA

9. ariketa

Talde bakoitzak **2 hektarea**ko eremu bat aukeratuko du, aurreko ariketetako herrian bertan. Eremua gehien bat garatu gabe —eraiki gabe— egongo da (eraikinen bat egon daiteke, taldearen ustez eraisgarria izatekotan). Hiri-lurzoruan zein kanpoan egon daiteke. Bi kasutan, jada existitzen den hiriko bide-sarearekin erlazionatu eta ondo lotu beharko da. Bertan, bizitegi-antolakuntza bat landuko du talde bakoitzak, honako ezaugarriak betez:

- Eremua ondo mugatu beharko da. Egindako aukera arrazoitu beharko da, leku jakin hori zer helbururekin hautatu den azalduz.
- Bide-sare berria argi azaldu beharko da, partzela berriekin batera. Proposatutako bide-sare berria ganoraz lotu beharko da jada existitzen denarekin.
- Partzeletan, etxebizitza-erabilera izango da nagusi (komertzio-lokalak ere egin daitezke; taldeak erabaki behar du beharrezkoak direnentz). Etxe mota ezberdinak egin daitezke (familiabakarrekoak, familianitzekoak…). Altuera ez dago mugatuta (bakoitzaren sen onaren arabera mugatu).
- Ekipamendu publikoak ez diren eraikinen lurzoru-mailatik gorako eraikigarritasuna **0,4 m^2/m^2**-koa izango da (komertzio gehiago egiten bada, etxebizitza gutxiago).
- Partzela batean ekipamendu publiko bat txertatu beharko da (erabilera eta neurria zehazteko jada existitzen den eredu bat erabil daiteke).
- Kaleetaz aparteko espazio libre publiko bat —gutxienez— diseinatu beharko da (plaza edo berdegunea; edo biak), gutxienez eremuaren azaleraren %15ekoa. Espazio publiko gisa kontsideratzeko gutxienez 30 metroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da.
- Etxebizitza-tipo nagusiak azaldu beharko dira (jada existitzen diren ereduak erabil daitezke).

Bizitegi-antolakuntza azaltzeko beharrezkoak diren planoak emango dira (kokapen-planoa, bide-sarea eta partzelen planoa, behe-solairuko oinplanoa, oinplano tipoa, sekzioak, tipologiak), paperean din A-1 formatuan (A-4 formatura tolestuta) eta CDan (PDF edo JPG formatuetan). Gogoratu hobe dela plano gutxi baina osatuta egitea.

Apirilaren 20ko klasearen hasieran emango da bukatuta

Donostian, 2010eko martxoaren 16an

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño